

## Herritarren mahaia

Apirilaren 29an ospatutako bileraren akta

LEKUA: Azpeitiko udaletxean

ORDUA: 19:00etatik 20:45ak arte

### BERTARATUTAKOAK:

\*\*\*errebisatu

*Itziar Abarisketa (Ezagutza Gunea), M<sup>a</sup> Jesús Agirre (hezkuntza), José M<sup>a</sup> Aizpurua (lehen sektorea), Aitor Aranguren (udal zinegotzia/Unibertsitatea), Nerea Azkue (giza arloa), , Iñaki Bastida (enpresa), Javier Etxeberria (Gureak), Aitzol Iparragirre (hezkuntza), Alberto Izagirre (hezkuntza), Nekane Larrañaga (unibertsitatea/etorkinak), Miren Larrea (unibertsitatea/enplegua), Ibon Odriozola (enpresa), Haizkurgi Uzin (herritarra), Ana Aizpuru (herritarra), Jaione Valverde (herritarra/Iraurgi Lantzen), Nekane Arrieta (herritarra/Iraurgi Lantzen), Mikel Aranbarri (herritarra), Naiara Zubikarai (lehen sektorea/Urkome), Idoia Agirre (hezkuntza), Araceli Ardanaz (hezkuntza), Eneko Etxeberria (Alkatea), Izaskun Ceciaga (udal teknikaria).*

### DINAMIZATZAILEAK:

Ana López eta Ainhoa Mitxelena (Minuartia Enea/Ikertalde laguntza teknikoa)

### GAI ORDENA

1. Alkatearen agurra eta prozesuaren egoerari buruzko azalpena.
2. Diagnostikoaren emaitzak ezagutarazi eta Plan berriaren oinarri izango diren lehentasunezko eremu nagusiak azaldu.
3. Lehentasunezko eremuen inguruko ekarpenak jaso.

# LABURPENA

## 1. Alkatearen agurra eta prozesuaren egoerari buruzko azalpena.

Hasteko, Alkateak bertaratutakoei ongi etorria eman eta prozesuaren egoeraren berri ematen die.

Azpeitiko arlo sozial eta ekonomikoari buruzko Diagnostikoa jada osatuta dagoela aipatzen da. Diagnostiko hau egiteko prozesuren hasieran sortutako hiru mahaiekin batera (mahai politikoa, mahai teknikoa eta herritarren mahaia) landu da, guztion ekarpenak jasoz. Honetaz gain, udal eta eskualde mailako teknikariekin elkarriketak egin dira informazioa jaso eta beraiekin batera aztertzeko.

Horren guztiaren ondorioz, gai edo arlo bakoitzeko fitxa bat osatu da non eremu ezberdinak aztertzen diren eta, aldi berean, arlo bakoitzeko lehentasunezko eremuak aipatzen diren. Proiektuaren hurrengo fasera pasa aurretik, hau da, Plana definitu aurretik, herritarren lehentasunak zeintzuk diren ezagutzea guztiz beharrezkoa da.

## 2. Diagnostikoaren emaitzak ezagutarazi eta Plan berriaren oinarri izango diren lehentasunezko eremu nagusiak adostu.

Jarraian, laguntza teknikoak diagnostikoaren emaitza nagusiak azaltzen ditu. Diagnostikoaren emaitzak hiru ataletan azaltzen dira:

- Garapen ekonomikoa eta lan merkatua
- Gizarte gaiak
- Hezkuntza, kultura, euskara eta kirola

Atal bakoitzean balorazio positiboa (aurpegitxo berdea), negatiboa (aurpegitxo gorria) eta tarteko balorazioa (aurpegitxo horia) izan duten eremu nagusiak azaltzen dira. Aldi berean, arlo bakoitzean definitu izan diren lehentasunezko eremu esanguratsuenak ere aipatzen dira.

Aurkeztutako emaitzak atxikituta bidaltzen dira akta honekin batera<sup>1</sup>.

## 3. Lehentasunezko eremuen inguruko ekarpenak jaso.

Diagnostikoaren nondik norakoak aurkeztu ondoren, laguntza teknikoak lehentasunezko eremuen inguruko ekarpenak jasotzeko planteatzen den dinamika azaltzen du:

1. Banakako lana: bakoitzak, fitxa batean, Azpeitiko Plan Estrategikoak barneratu beharko lituzkeen 3 gai nagusiak jasoko ditu.
2. Adostasunak lortzeko taldeko lana: bertaratutakoak hiru edo lau taldeak elkartuko dira eta bakoitzak zehaztutako ideiak azaldu ondoren, guztion artean hiru ideiak nagusi adostu behar dira. Adostutako ideiak "lore" batean idatziko dira.
3. Goazen etorkizunerako haziak ereitera!: talde bakoitzean adostutako ideiak azalduko dira eta loreak horma-irudi batean ipiniko dira, gaien arabera antolatuz.

<sup>1</sup> Hezkuntza-mailari buruz aurkeztutako grafikoan akats bat zegoen eta aktarekin batera bidaltzen diren materialetan akats hori jada zuzenduta dago.

Jarraian, adostutako ideiak eta jasotako ekarpenak azaltzen dira:

#### ENPLEGUA ETA EKINTZAILETASUNA

- Ekintzaiiletasuna sustatzeko plan orokor bat bultzatu kolektibo ezberdinak (gazteak/helduak) eta sektore ezberdinak kontuan hartuz.
- Eskualdeko enplegu beharrak identifikatu 1go, 2. Eta 3. Sektorean eta ekintzaiiletasuna bultzatu. Erakunde ezberdinetatik animatu eta lagundu.

#### ENPRESA TXIKIAK ETA TURISMOA

- Enpresa txikiak babestu eta euren lehiakortasuna bultzatu
- Turismoa: aukera handiak eskaintzen dituen sektorea da, potentzial handiena duena zerbitzu berriak eskaintzeko ostalaritza arloan, etab. Loiolak duen erakarpen ahalmena aprobetxatu.

#### EKONOMIA EREDU BERRIA

- Bertako kontsumo kontzientziazio lana egin, horretarako baliabide eta tresnak ahalbidetuz. Bertako produktuak/autokontsumoa/bertako merkataritza, lehen sektoretik hasita.
- Ekonomia eredu berria:
  - Lan eta ondasun banaketa
  - Gutxi batzuk beste guztien kontura aberastea ekidin
  - Herritarren kontsumo eredu
- Lanaren eredu ezberdinak aztertu beste erlazio moduak bultzatuz. Ekonomiaren eredu berriak bultzatu: lan erlazioetan, sektore garapenean...

#### GINARRIZKO BEHARRAK

- Sektore baztertuei atentzio berezia eman, batez ere, ginarrizko beharrak asetu gabe dituzten herritarrei.
- Herritarren ginarrizko beharrak (ginarrizko errenta, etxebizitzak,...) beteko eta asetuko dituen politika sozialak bultzatu.
- Txiroenen eremuari erantzutea lehentasuna izatea (desjabetze kasuak eta behar handienak dituzten kolektiboak).

#### HEZKUNTZA

- Hezkuntza arloan balore berriak sustatu ikasleen artean (ekintzaiiletasuna, "herritar kritikoa", elkartasuna, parte-hartzea,...etab.).
- Langabetuei orientazio zuzena eman.
- Ikastetxeen arteko koordinazio maila bultzatu.
- Herritar eta enpresen beharrak ikastetxeei helarazi.
- 3. adineko menpekotasuna eta eskolaz kanpoko haurren zaintzaren eremuen inguruko enplegua eta formazioa bultzatu.



Azkenik, bertaratutakoei hurrengo pausuak zeintzuk diren gogoratzen zaizkie, hurrengo bilera hemendik hilabete batera gutxi gora behera izango dela aipatuz:

- Ekintza Planaren zirriborro bat landu eta aurkeztea (hurrengo bileran)
- Ekarpenak jaso, baloratu eta txertatzea
- Ekintza Plana adostea (mahai teknikoan, herritarren mahaian eta mahai politikoan)

Bilerari amaiera ematen zaio.